



Ekipoa	Eguzki-kolektore termiko laua ura berotzeko
Kodea	D-4018
Ingurumen-hobekuntza	<ul style="list-style-type: none"> - Energia aurreztea eta energia-efizientzia. - Klima-aldaketaren aurkako borrokan laguntzea.
Deskribapena	<p>Eguzki-kolektore termikoa da gehien erabiltzen dena, erraz fabrikatzen delako. Lau elementu ditu: ura eramateko zirkuitua, xurgatzeko plaka, estalki gardena eta babesteko karkasa. Zati mugikorrik ez duenez, asko irauten du.</p> <p>Eguzki-kolektore termiko lauaren bidez, berotegi efektua sortzen da modu artifizialean karkasa-estalkiaren barrualdean. Hala, eguzki-erradiazioa estalki gardenetik sartzen da, eta xurgatzeko plakari eragiten dio zuzenean. Plaka jariakinaren eroapen-sistemara soldatuta dago, eta jariakinaren tenperatura igotzen denean, eroapen bidez, xurgatutako beroa transmititzen dio lanerako jariakinari.</p> <p>Eguzki-kolektore termiko laua ura berotzeko beiraren ezaugarriei esker, plakak jasotako energiaren hamarrena bakarrik islatzen da atmosferara. Izan ere, beira gardena da eguzkiaren erradiazioa jasotzeko, baina, aldi berean, iragazgaitza da plakak berriz emititzen duen erradiazio infragorriarekiko.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Sistemaren errendimendua aldagai hauen baitan dago: jasotako eguzki-erradiazioa, kanpoko tenperatura, lanerako erabilitako jariakina, plakaren eta estalkiaren ezaugarriak, tutuen eta plakaren arteko soldaduraren kalitatea, ekipoen isolamendu termikoa, funtzionamendu-eskema, etab.
Zein sektoretan aplikatu daitekeen eta erabilerak	<p>Enpresa txiki eta ertainen esparruan, lehenengo sektorean, zerbitzuetan eta industrian erabil daiteke. Zehazki, honako hauek dira erabilera nagusiak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Igerilekuen berokuntza. - Berotegietarako ur beroa. - Tenperatura baxuko industria-prozesuak. - Ur bero sanitarioa udal-instalazioetarako, adibidez, kiroldegia, kultur-etxeak, etab. - Ur bero sanitarioa ikastetxeetarako, unibertsitateetarako. - Orokorrean, ura berotzeko. Sektore guztietan aplikatu daiteke.